



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Ikerketa Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
Dirección de Investigación

EBAZPENA, 2020ko abenduaren 30ekoa, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearena, 2020-2021 ikasturtean ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programa laguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2020ko uztailaren 21eko aginduaren bidez deitutako dirulaguntza berriak ebazten dituen.

Agindu horren 31. artikulua araberak, laguntza berriak, Ikerketa Orokorrean, ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakarraren bidez gauzatu da, hautapen-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta Berariazko aholku batzordeen ebaluazioa eta hautapen-batzordeak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea ikertzaile doktoreen doktoretza-ondoko hobekuntza-programarako dirulaguntzak eta dagozkien ezarpen zentroa zein kontratuak eta bidaiak finantzatzeko zentroak jasoko duen diru kopurua ezartzea 2020-2021 ikasturterako.

Kontratu horiek 12 hilabetetarako izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, arloak eta lehentasuna zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 30. artikuluko 5. atalak zehazten duen bezala beteko dira.

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.- IV. eranskinean agertzen diren kanpoan utzitako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, kanpoan uzteko arrazoiak zehaztuz.

Bostgarrena.- Dirulaguntza horien zenbateakoa, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak 2020ko uztailaren 21eko aginduak xedatutakoaren arabera erabakitzea.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, bere aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesadunek, Hezkuntza sailburuari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da, ebazpen hau [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 30a.

ADOLFO MORAIS EZQUERRO  
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea



HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN